

## IRAKASKUNTZA-GIDA

2022/23

**Ikastegia** 160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa** 2. maila

## IRAKASGAIA

25946 - Gizarte Egitura eta Estratifikazioa

**ECTS kredituak:** 6

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau soziologiaren ezagutza-eremuan kokatzen da. Irakasgaiaren landutako hainbat puntu soziologiarako sarreran jorratu dira eta berau jarraitzeko ezinbeskoak dira.

Bere helburu orokorra, gizartearen errealitate material zein sinbolikoa artikulatzen duten oinarrizko egiturak ezagutzea da, estratifikazioari buruzko teoria eta kontzeptu ezberdinak sakonduz eta, adierazle sozial enpirikoen bidez, egitura sozialaren funtsezko ezaugarriak aztertuz.

Irakasgai hau "Gizarte langintzak eragiten dien prozesu eta arazoak" izenburua duen Moduluan kokatzen da.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

### IKASGAIAREN DESKRIBAPENA

Gizartearen errealitate material eta sinbolikoa artikulatzen duten egitura-giltzen ezagutza, estratifikazio sozialari buruzko teoria eta kategoria kontzeptual anitzetan sakonduz eta egitura sozialaren ezaugarri nagusiak aztertuz, adierazle sozial enpirikoen bitartez.

### GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Gizartean ematen den giza portaeraren portaera eta oinarrizko elementuak ulertzea, baita persona eta inguruaren arteko harremana. Baita gizarte zientzien ikuspuntuak azken honi buruz (M03CM01)(MG1/MG2)
2. Gizartearen eta boterearen desoreka eta ezberdintasunen oinarrizko gakoak ezagutu eta ulertu, baita bazterketa eta zapalketa tresnena ere, eta prekariedade egoerak identifikatu (M03CM04)(MG3/MG4)
3. Gizartean ematen diren jarrera, estereotipo eta aurreiritziak identifikatu, eraketa eta aldaketa mekanismoak, eta identitate pertsonal eta sozialean duten eragina, diskriminazio eta gizarte bazterketa arrisku egoeran dauden herritarren behar sozialen prebentzio eta diagnosiei aplikatu ahal izateko (M03CM05)(MG5/MG6/MG7)

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Gizarte-egitura: interakzio soziala. Egitura sozialaren ezagutzak Gizarte Langintzan duen garrantzia. Egitura sozialari buruzko teoria handiak.
2. Estratifikazio soziala. Bilakaera historikoa eta estratifikazio sozialaren teoriak.
3. Prozesu demografikoak: biztanleriaren historia. Teoria demografikoak.
4. Egitura ekonomikoa. Iraultza industrialetik fordismora. Fordismotik postfordismora.
5. Ezberdintasun sozialak eta pobrezia. Genero ezberdintasunak.
6. Prozesu ideologikoak eta globalizazio kulturala.
7. Osasuna eta gaixotasuna.

## METODOLOGIA

Klase magistralak. Ikasgaia ikuspuntu teoriko batetik landuko da: oinarrizko kontzeptuak, argibide teorikoak, prozesu sozialen azalpenak, eta abar.

Gelako praktikak: Klase magistraletan landutako gaiak modu ezberdinez sakonduko dira: irakurgaiak, taldeko eztabaidak, ariketak, eta abar. Zenbait kasutan, praktikak irakasleari entregatu beharko dira.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Talde lanak (arazoan ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio sistemaren inguruko orientazioak

Irakasgai honetan, ebaluazio sistema JARRAIA gailentzen da, eta horrek eskolen jarraipena eskatzen du. Ebaluazio sistema honi dagozkion ebaluazio portzentaia hauek dira.

**EBALUAZIO JARRAIA:**

- Notaren %60a = idatzizko azterketa.
- Notaren %40a = taldeko lana.

Irakasgaia aprobatzeko, ebaluaketaren parte guztiak gainditu beharko dira. Ohiko deialdian baterenbat aprobaturik ez balitz, aprobaturik ez diren parteak ez-ohiko deialdirako gordeko litzateke. Hala ere, ez dira notak gordeko kurtsu batetik bestera.

**AZKEN ebaluazio sistemako portzentaia:**

- Notaren %60a = idatzizko azterketa.
- Notaren %40a = banakako lana.

Ebaluazio finalean ere, irakasgaia aprobatzeko, parte guztiak aprobaturik beharko dira. Ohiko deialdian baterenbat aprobaturik ez balitz, aprobaturik ez diren parteak ez-ohiko deialdirako gordeko litzateke. Hala ere, ez dira notak gordeko kurtsu batetik bestera.

Azterketa idatzia egiterakoan kontuan eduki beharko da Etika Akademikoari buruzko protokoloaren arabera:

"UPV/EHuko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere" (5. orrialdeko 3. puntua).

"UPV/EHUn honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkoak ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan akademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoratzea lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntua).

Bestalde, "Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia" 11.3 artikulua arabera:

Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspenso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio.

**Azken ebaluazio sistemara aldaketa**

Ikasleek, nahiz eta ebaluazio jarraian hasi, azken ebaluazio sistemara pasa daiteke, baldin eta irakasleari eskaera idatziz egiten badiu; lau hilabete hasi eta bederatzigarren astera arte du epea.

**Ebaluazio jarraian kasu deialdiari uko egitea**

Ikasleek deialdiari uko egin ahal izango dio ebaluazio jarraia sistemari, lehenengo lau hilabete irakaskuntza garaia bukatu baino hilabete lehenagoko epean gehienez. Eskaera hau irakasleari idatziz helaraziko zaio.

Azken ebaluazio sistemaren kasuan, azterketa data ofizialean ez aurkeztean deialdiari automatikoki uko egiten zaio. Aurreko bi kasuetan, kalifikazioa EZ AURKEZTUA izango da.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio jarraia zein azken ebaluazio sistemaren, ohiko deialdiko ebaluazio portzentaia berdina mantentzen dira ezohikoan. Bietan parte guztiak gainditu beharko dira.

Ez dira kurtsu batetik bestera gainditutako parteak kalifikazioak gordeko.

**Uko egitea**

Ikasleek deialdiari uko egin ahal izango dio ebaluazio jarraia sistemari, lehenengo lau hilabete irakaskuntza garaia bukatu baino hilabete lehenagoko epean gehienez. Eskaera hau irakasleari idatziz helaraziko zaio.

Azken ebaluazio sistemaren kasuan, azterketa data ofizialean ez aurkeztean deialdiari automatikoki uko egiten zaio. Aurreko bi kasuetan, kalifikazioa EZ AURKEZTUA izango da.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Nahitaez erabili beharreko materialak, ikasturtean zehar Egelan jarriko dira.

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

Bretones, María Trinidad (2001). *Sociedades avanzadas. Manual de estructura social*. Barcelona: Hacer.  
Perelló, Salvador (ed.)(2019). *Estructura social contemporánea*. Valencia: Tirant LoBlanc.  
Requena, Miguel; Salazar, Leire eta Radl, Jonas (2013). *Estratificación social*. Madrid: McGrawHill.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

Berger, P.L. y Luckmann, T. (1997): *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.  
Castells, Manuel (2020). *La era de la información. Vol 1. La sociedad red*. Madrid: Alianza.  
Esping-Andersen, Gosta (2011). *Fundamentos sociales de las economías postindustriales*. Barcelona: Ariel.  
Giddens, Anthony (2000). *Manual de sociología*. Madrid: Alianza.  
Luxán, Marta eta Martín, Unai (2012 ). *Demografía*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.  
Martínez Virto, Lucía (2014). *Sobreviviendo a la crisis. Estrategias de los hogares en dificultad*. Barcelona: Bellaterra.  
Standing, Guy (2013). *El precariado. Una nueva clase social*. Barcelona: Pasado&Presente.

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

EUSTAT  
[www.eustat.eus](http://www.eustat.eus)

OSEKI  
[www.oseki.eus](http://www.oseki.eus)

## OHARRAK